

Madrid-en lau hizkuntzaz argitaratua) eta V. Paz-Andrade-ren *Pranto matricial* (1975ean Coruñan argitaratua, bost hizkuntzatan, portugesa gehituaz).

Azkenez Asterix-en liburuak itzultzen ari zen, lau kasik bukaturik utzi zituen eta 1976an argitaratu dira Jesus Mari Arrietak osaturik.

Euskal poesia berriaren eragilerik handiena izan zen, eta antzerkian ere ahaleginik asko egin zuen bide berriak aurkitzearen alde. Jaso zituen saririk aipagarrienak hauk ziren: poesian, "Loramendi" izenekoa 1959, "Orixe" 1963, "Lizardi" 1966 eta "J. M. Iparragirre" 1968; eta, antzerkian, "T. Alzaga" 1961.

Langile borrokatua zenez, Euskaltzaindiaren eskariz, nahiz beregandikako eskaintzaz, lanik anitz egin zigun. Euskara idatziaren batasun bidearen urratsetan, idazlerik gehienon gogoak eskatzen zuen bidea markatzeko eta bultzatzeko, talde baten eskariz, X. Kintanaren laguntzarekin *Batasunaren kutxa* (1970) deritzan liburua gertatu zuen. Baina, geroztik, Euskaltzaindiko aditz batuaren batzordeko kontseilarien artetik langileenetako bat izan zen Gabriel.

Euskal literaturak gure gizaldiko idazlerik hoberenetako bat galdu du; Euskaltzaindiak egiazko laguntzaile bat. Adiskide maitea, bego atsedenean.

J. S. M.

JOSE ETXEANDIA BEASKOA (1897-1976)

Ibarrangeluako Akorda hauzoan jaioa 1897an eta Durangon hila 1976ko urtarrilean. Apaiza. Durangon egin zituen bere lehen ikastaroak eta ikastaro nagusiak Comillas-en, Derecho Canónico doktoradutza bete arte. Lehenengo Nabar-nizen eta gero Durangoko Santa Anako parroko. Bietan euskaldun agertu zen. Gerraondoko urte ilun haietan, N. Alzolak dionez, abertzale zahar batek esan omen zion Don Jose-ri: "Zure moduko abadeak balegoz hemen, obetua juengo lei-

txeke euskera kontue Durengoko eleixetan". Esaldi honek adierazten digu euskaldun predikari jatorra.

Gainera, gerraondoko lehen bertsolari saioak eratzen lagundu zion Euskaltzaindiari, eta zen modukoa zenez, bertsolari txapelketen epai-mahaiko bere burua agertzeaz garai hartako giroan asko lagundu zion euskarari. Eta 1961ean Euskaltzaindiak bere laguntzaileen arteko izendatu zuen.

"Tavira" zeritzan aldizkaria sortu zuen Durangon 1959an. Argitaratzez ez zuen epe mugaturik, ahal zenean agertzen zen. Bertan idatzi zuen euskaraz eta erdaraz, baina baita ere besteei idatzarazi, Olazaranek Durangoko euskal-idazleei buruz egindako lanak aipagarriak dira, N. Alzola Gerediagak ere argitaratu zuen lan garrantzizkorik eta J. L. Lizundiak aldizkari honetan egin zituen bere hasierakoak.

Lan horiez gainera zenbait libururen egilea genuen. Erdarazkoak: *Heroísmo y Martirio* (Buenos Aires, 1943) eta *La persecución en el País Vasco* (Barcelona, 1945); euskaraz: *Kristiñau-Ikaskizuna* (Bermeo, 1947) eta *Domund Domekan euskaldun guztiak euki bear daben asmoa* (Bermeo, 1950).

Gaurko ikuspegitik bestela hartzen bada ere, ukatu ezi-nezkoa zaigu Jose Etxeandia zenaren nortasuna eta bere tintotasunak euskara hain baztertua zen garai hartan gure hizkuntzaren alde egin zuen mesedea. Jokaera zintzo honen jabe zen euskaltzalea, G. B.

J. S. M.